

P.F. Irigaray “Larreko”-ren obraren azterketa estilistikoa

MARIAM ANTOÑANA ABALOS*

O. SARRERA

Azterlan honen xedea, Larrekoren prosaren estiloa edo idaztankera deskribatzea eta baloratzea dugu. Idazle napar honen izkribuen tankera zertan oinarritzen den definitu beharko dugu, eta, horretarako, urratsez urrats joanen gara baliabideak jorratuz.

Nola burutu behar dugun azterketa zehaztu baino lehenago, estilistika arloa eta Larreko idazlea hautatu izanaren arrazoiak argitu nahi genituzke. Alde batetik, estilistika, euskal literaturaren barne, lantze arloa dugu, ikerketa gutxi edo eskasak egin baitira. Estilistika, azken urteotan osatzen, egituratzen ari den disziplina, bere metodo propioa bilatzen ari da oraindik, erretolika klasiko arautzailetik bereiztearren. Dena den, gainerako zientzietako tresnez eta metodoez baliatu beharrean aurkitzen da, hala nola gramatika, hizkuntzalaritza, historia literarioa, dialektologia, kritika edo erretolikari dagozkienak¹. Gu, funtsean, gramatika, hizkuntzalaritza eta erretolikako metodoei lotuko gaitzaizkie Larrekoren prosa aztertzerakoan. Larreko hautatzeko zergatia, bestalde, hauxe da: ez dugu idazle napar aunitz izan Hegoaldeko euskal idazleen artean, eta izan direnak ere gutxi ezagutzen dira.

Euskaldun berria zen Larreko, guraso euskaldunengandik sortua izan arren. Sendagile ikasketak Madrilen behin burutuz gero, Euskal Herrira eto-

* Euskal hizkuntza eta literatura irakaslea.

1. “La stylistique apparaît (...) au carrefour de bien des routes. La grammaire, la linguistique, la linguistique comparée, la statistique, l’histoire littéraire, la caractérologie, la rhétorique (au sens d’étude des procédés et libérée de ses aspects normatifs), la dialectologie, la critique... projettent sur le phénomène du style l’éclairage de leurs méthodes”.

DUPRIEZ, B.: *L’étude des styles*. Paris. Didier. 1969.

rri zen berriro, bere lana herriska euskaldun batean burutzer. Hortaz hasi zen bere burua euskalduntzeari ekiten. Euskal Pizkundeko aitzindariak hasitako bideari lotu zitzaion, euskal mintzaira eta kultura hedatu eta aurrera eramateko. Anitz egunkari zein aldizkaritan idatzi zuen, erdaraz eta euskaraz, bere herriaren defentsan. Idazle bilakatutako sendagilea dugu, beraz, Larreko. Kazetaritza izan zen berak landu zuen jeneroa, eta aukera horrek zer ikusi haundiago izan zuen ideologia zabaltzearekin, literatura hutsa, sormen lana egiteko gogoarekin baino.

Bere idaztan keraren azterketari dagokionez, metodologia tradizionala erabili dugula esan dezakegu. Hasteko, zeintzu diren gehien agertzen dituen gaiak azalduko dugu, errepikatzen diren gaiak, alegia. Zein motatako artikulak idatzi zituen zehaztuko dugu gero eta, azkenik, adierazle mailako espresamoldeak aztertuko ditugu, gure balorapena eman baino lehen.

Azterlan hau burutzeko erabili dugun corpus-a, hurrengo liburuetan bil-tzen diren artikuluek osatzen dute:

Prosistas navarros contemporáneos eta *Nafarroako euskal idazleak* ².

Azalpena erraztearren, lehenengoa A izendatuko dugu, eta bigarrena, B.

I. GAIAK

Larrekok, neurri haundi batean, helburu ideologiko baten menpean ezarri zuen hizkuntza literarioa, hots, ez zuen idazten literatura hutsa egiteko asmo soilarekin. Hori baino garrantzitsuagoa, bere ustez, eta garaikide guzien artean hedaturiko ideia zen hori, euskal hizkuntza, ohitura zaharrak eta aberria bera bizi arazteko premiaren agerpena eta defentsa zen, euskara, hauen sustraia eta oinarria zelako, hain zuzen.

1.1. Hizkuntza

Idazle gehienek, Larreko barne, bigarrego maila batean kokatu zuten hizkuntza literarioaren beraren lantzea, hizkuntza biziaren aldeko jarrera hartuz, hori baitzen inongo idatziriko hizkera baino lehenagokoa. Suge-gurpilaren antzera, hizkuntza behar zen hizkuntza bera sustatzeko eta hizkuntzari buruzko apologia egiteko.

Ulergarria da, kontestu horretan, euskaldun berri baten premia hori, eta Larreko euskaldun berria dugu, sendakina bihurtu eta gero hasi baitzen euskara ikasten, “entzunez, aurrek ikasten duten bezala” ³, eta oso helburu praktikoko baten ondorioz hezi zen bere baitan ikasteko beharra, “sendakintzako nere egitekoak betetzeko” ⁴. Euskal herri bateko sendagile izendatu zuten eta bera erdaldun hutsa besterik ez zen. Egoerak, bizitzak

2. IRIGARAY, Anjel: *Prosistas navarros contemporáneos*. Iruñea. 1958. (A)
- LARREA, José María eta DIEZ DE ULZURRUN, Pedro: *Nafarroako euskal idazleak* (I). Pamiela. Iruñea. 1987. (B)
3. “Larreko” euskaraz ikasten. (B)
4. Ibid.

eragindako kontzientzi hartze bat dugu, horrez gero, idazlearen euskalduntzeko behar hori.

Euskal hizkuntza, euskara, izanen dugu Larrekoren gai garrantzi-suenetariko bat, euskaldun arrunten mintzaira, bordariena, alegia.

1.2. Aberria

Hizkuntzari zeharo atxekirik agertzen zaion gaia aberriarena da. Euskalduna horrelakoa da euskaraz mintzatzen delako eta euskaldunak osatzen duten aberria Euskal Herria da, euskararen herria, alegia. Ez dago, Larrekoren ustez, aberririk, hots, euskal aberririk, euskal hizkuntzarik gabe: "Abertzaletasuna edo nazionalidadea izatetik eldu da; odoletik, endatik, abizenetik, izkuntzetik eta sorlekutik"⁵, "Ez Frantsesa ez espāñola; eskualdunen aberri bakarra: "Eskual-erria eta Eskual-Erriko mintzo bakarra, eskuara"⁶.

Ohiturak eta hizkuntza dira, ezbairik gabe, beste herrialdeenganik bereizten gaituztenak, eta hau, ukaezinezko egia da, idazlearen eritziz.

Aberriaren kontzeptu hori, Arana-Gori'tarrena zen, eta hauek ziotenari lotu zitzaion Larreko:

"Aberri bat bakaña, ura solik maitatu eta bertze erialde guzien ganik berez, azke, beregain, bere-esku"⁷.

Aberriaosatze horretan, garrantzizko papera jokatu behar dute euskaldunek eta beraien hizkuntzak. Euskalduna aberri egilea da euskararen bidez. Euskararik gabe, aberria bera deuseztatzeko bidean jarriko da.

1.3. Erljioa

Erljioa, Larrekoren diskurtsoren hirugarren oinarria da. Charles Mendiou Sarakoari buruz idazten du behin oso atxikia zela Euskal Herriko ohitura ederrei "behinere aiantzi gabe Eskualduna fededuna dela" ("Bi eskualdun", B). Fededun izate hori, erljio katolikoa jarraitzeari dagokio, hots, horren moralari irmoki atxekitzea suposatzen du. Euskaldun zintzoa, egiaren aldekoa da, ez da beldurtzen egiaren aurrean.

Euskalduna, berez, zintzoa da, zintzotasuna da haren ezaugarri narmenena. Idealismo simple batean oinarritzen du Larrekok ideia hori: euskal hizkuntza ona da, berez, ez baitu biraorik, garbia da, eta hizkuntzaren izatea eta euskeldunena bat da. Horrez gero, nahitaez onetsi beharko da euskaldunaren nortasuna behar bezalakoa dela, ez duela Jainkoaren esanen aurka jotzen.

Pertsonaren kontzepzio idealista horretan, hala ere, bada oztopo bat. Bi akats ikusten dizkio Larrekok euskaldunari. Bata, etxeoandrea beste lane-

5. Euskaldun ona... euskaldun. (B)

6. "Naparra-tik". (B)

7. "Ardi galdua". (B)

tan, egurketan edo ikazketan, aritzea, etxean baino. Bestea, gizonen edariari gehiegi ematea. Bigarren hau, etxekoandrea gisakoa edo ez gisakoa izatean datza, horren arabera gizona etxetierra edo taberna zalea izanen baita ⁸.

Akats horiek, dena den, ez omen dira nahikoak Larrekok eraikitzen duen euskal nortasunaren irudi idealista deuseztatzeko (irudi hau, Euskal Pizkundeko partaideek zutenarekin bat dator, noski).

1.4. Ondorioak: didaktismoa

Didaktismoa dugu Larrekoren diskurtsoaren oinarria. Argi eta garbi aitortu zuen zeintzu ziren bere helburuak, hots, euskara garbitu, hobetu eta euskaldunen artean zabaltzea ⁹. Hizkuntza heriotza ziur batengandik urruntzea izan zen bere kezka nagusienetariko bat. Ezin dugu ahaztu Euskal Pizkundearen barneko euskaltzaleek ideologia berbera erabili zutela, eta Larrekok bat egiten du beraiekin.

Euskararen galerak larriki mintzen du gure sendagile-idazlea eta diagnostikoa egiten du: hizkuntzari egindako kaltea, letradunen errua izan da, letradunek, jaunek eta anderek oinperatu dute; haiei dagokie euskara goratu eta gaitzea ¹⁰. Azken hau, euskaraz idatziz lortu daiteke soilik, gizartearen behar guztiak aintzakotzat harturik, hizkuntza euskal moldeen arabera egokituz eta aberastuz. Asmo honetan, baserritarrak hartu beharko dira eredutzat, haien mintzaira jatorrizko mintzoa baita. Larrekok ipar-aldeko goi-nafarreraz idatzi zituen bere idaztiak, herrihizkerari ahalik eta hobekien lotuz, baztanera eta lapurteraren eraginarekin.

Beste euskal idazleei buruzko eritziak ematen dituenean ere, euskararen alde hitz egiteko aipatzen ditu, hala nola “Oxobi”ren euskaraz dioena ¹¹, euskaldun garbia izan behar duela bere “Alegiak” ondo aditu nahi dituenak, eto-ta Joannes D’txeberri-ren obraz, “Eskuararen hatsapenak”, komentatzen duena (euskara garbia, noblea da) ¹².

Lapurteraz irakurriz hobetu zuela bere hizkera-maila aitortzen digu, eta horregatik ditu hain gogoko Iparraldeko idazleak, Iriart-Hurruty, M. Abbadie, —“Eskualduna” astekariaren zuzendariak— Adema eta, noski, Axular, Araneder eta Chourio. Axular zen, guztien artean, nahiago zuena, haren obra irakurgairik ederrena zitzaionarik.

8. “Edarikoia”. (A)

9. “No tengo más que un grande deseo de purificar, mejorar y difundir el euskera entre los vascos”.

“Por nuestra lengua”, in *La Voz de Navarra*, 1924-7-26.

10. “Nafarroako euskal esakerak”. (A)

11. “Oxobi” apez jaunaren “Alegiak”. (B)

12. “Joannes d’Etxebefi”. (B)

II. LARREKOREN BERBALDIA

2.0. Berbaldia

Orokorrean, didaktismoaren menpean burututako berbaldia da Larrekok eskaintzen diguna. Hizkuntza, aberria, erlijioari buruzko egiak besteenganatzeko eraikitako prosa honek, narrazio-egilearen parte hartze zuzena eskatzen du, eta horrexegatik izanen dugu, artikulua eta istorio gehienetan, narratzailearen lehenengo pertsona. Larreko bera aurkezten zaigu bere ideiak eta sentimenduak azaltzen, eta errealitatetik hartutako istorioak narratzen.

Hiru motatako artikulua sailkatu ditugu gure corpus-ean:

1. Berbaldi ideologikoa nagusi dutenak.

Honen barne, kronikak, eritzi-artikulua (gizarte, politika, literatura, gramatika gaietako buruzkoak) sartzen ditugu.

2. Narrazioak.

Funtsean, kronikak dira. Bereiztearen arrazoia, ekintzaren nagusitasuna izan da.

3. Medikuntza-jarraipideak.

Zenbait jarraipide ematea dute xedea, nolabaiteko testu erakargarria sortzea baino gehiago.

2.1. Berbaldi ideologikoa

Aukeratutako corpusean, mota hauetakoak dira Larrekok idatziriko artikulua gehienak.

Mezu ideologikoa bat igortzea dute idazti hauek helburu. Euskara atzeraka zihoan garai hartako Nafarroan ere, eta noraezekoa eritzi behar zion Larrekok hizkuntza zaharraren apologia egiteari. Honekin hertsiki lotuta, gorago esan legez, aberriaren ideia zegoen: hizkuntzak aurrera egingo bazuen, aberri batua eta askea behar bait zen gauzatu, erlijio kristauaren arauak ahantzi gabe.

Idazlearen ikuspegia, mezu hori irakurle goarengana helarazteko, arazoan parte hartzen zuenarena izatea ezinbestekoa zen, eta, gainera, holaxe sentitzen zuen Larrekok, arazoa berea egin baitzuen. Bere ikuspegia, beraz, partaidearena da, irakurlearekin bat eginik, eta lehenengo pertsonan mintzatuko zaio, edo-ta bigarrean, berarekin elkarriketa sortuko balu bezalaxe.

Horregatik, eskutitz antza hartzen dute maiz artikuluek, jenero epistolarrari dagozkion formula berberak erabiltzen direlarik. Dei-funtzioa nagusitzen da, horrez gero, eta badakigu funtzio honen xedea irakurlea bereganatzea dela. Horrela hasiko dira artikulua zenbait:

*"Ene irakurle maite; barkatu baño..."*¹³.

13. "Axular euskal idazle geiena". (B)

Edo-ta, testuan tartekaturik:

“Ene irakurle maite: gutun¹⁴ ori irakurtzen duzularik, nerekin batio éranen duzu: ...”¹⁵

Eta bukaeratzat:

“Irakurle maite, Jainkoa baitan, agur”¹⁶.

“Jainkoa baitan, irakurle maite ori, agur”¹⁷.

2.2. Narrazioak

Hiru dira gure corpus-ean horrela sailkatu ditugunak, nahiz eta didaktismo beraren zerbitzutan egon eta mezu berbera agertu, ekintza nagusitzen zaiolako berbalde ideologikoari:

Ardi galdua” (B)

“Eskualdun biozduna Mexicon” (A)

“Alli-ko Arpe-zulo-en agerraldia” (B)

Hala ere, azkena, istorioa baino gehiago, leitz batzuen deskribapena da, baino, ibilaldi baten kontaketa kokatzen denez, sail honetan sartzea zilegi iruditu zaigu.

Hiru hauek, oso lotura estua dute errealitatearekin. Lehenengoan, idazleak bere bizitzaren istorioa kontatzen duela ematen du, sendagile erdaldun eta fedegabeko baten bilakaera, hain zuzen, erdaldun eta fededun bihurtzerainoko aldaketa, Arana-Goiritarren irakaspenek eraginda.

Bigarrena erreportai moduko narrazio luzea da eta euskaldun baten zintotasuna goraiatzeko du, nola jokatu duen erbestean kontatzen digularik.

Bi hauetan, hirugarren pertsona erabiltzen du idazleak, nolabaiteko urruntasuna sortu nahi bezala. Hirugarrenean, ordea, idazleak beste lagun batzuekin burututako ibilaldia denez, lehenengo pertsona erabiltzen du (euskararen aipamena ere egiten digu, mezu gisa).

Egitan gertaturiko istorioak dira Larrekok kontatzen dizkigunak, eta sines ditzagun nahi du berak. Badu interes handia sinesgarritasun hori azpimarratzeko:

“Irakurle maite: gure gizon eskualdunak berak erran bezala egin dut lerro aldi au. Oro egia dela, ari gertatua sinesten aal duzu (...).

Egiaz diozute, alako gertakariak nere burutik ateratzeko gai eznaizela¹⁸.

Sinesgarri egiteko ere, datu zehatzak pilatzeari ekiten dio, kontaketa astun samarra bilakatuz:

“Otsaillaren 19 garrenean, arratsaldeko iruetan eskuratu zuten gutun idazki batean jakinazten zioten egun artan bertan 150 asaldatzaleak inguruko

14. gutun = liburua.

15. “Joannes d’Etxeberri”. (B)

16. “Deia”. (B)

17. “Axular” euskal idazle geiena”. (B)

18. “Eskualdun biozduna Mexico-n”. (A)

erri batez jabetu zirela eta eken xedeak zirela, meatzetik urbilten erria jotzeko. (Iru ordu laurden bidera baizik ez dagona)".

"Meatzeko lanetan ari zirenak baziren, 150 langile oianean egur mozten eta egurketan; 700 langile meatze zuloetan, mea ateratzen eta meaketan; azpiko zokoan zituzten labe eta mea xeatzeko lantegietan, 200 langile" ¹⁹.

2.3. Medikuntza-jarraipideak

Sendagilea zen aldetik idatzi zituen holako jarraipideak, eritasun baten bat sendatzeko modua erakusteko. Literatura zientifiko eta teknikoaren arloan kokatu behar ditugu; gure corpuseko bat besterik ez dugu sailkatu hemen, "Apendizitis eta urdail zulatzea". (A)

Badira beste bi, "Sendalari baten argiak. Apez gazteen laguntzeko, erihandietara deituak direlarik" (A) eta "Edarikoia" (A). Lehenengoan, tituluaren bigarren zatiak adierazten duenez, erlijioak du pisurik haundiena, eta medikuntza kontuak horren menpean erabiltzen dira, gai erlijioso bat argitzeko, hain zuzen. Bigarrenean, gauza bera egiten du, edarikoia edo edarizaleari buruz mintzatzen da, zaletasun hau euskaldunak duen akats haundienetarikotzat jotzen duelarik.

III. LARREKOREN IDAZTANKERA

Formaren analisisa egiteari lotuko gara oraingoan, eta hau, hiru maila nagusi aztertuz, hots, alderdi foniko-fonologikoa, morfosintaxi alderdia eta maila semantikoa. Azterketa honen bidez ikusi ahal izanen dugu nola egokitzen duen Larrekok bere prosa komunikatu nahi duen mezua adierateko, eta zein nolako balio literarioa duen prosa horrek.

3.1. Maila foniko-fonologikoa

Oso espresabide gutxi erabiltzen du gure idazle naparrak, alderdi hone-tatik aztertua. Urritasuna litzateke, beraz, ageriko ezaugarria.

Aliterazio zenbait sortzen ditu noizean behin, baino ohartzeke egindakoak ematen dute, idazlea beraien bila joan ez balitz bezala, ondoko esaldian suertatzen direnen antzera:

"...baño biotz oneko pinpirina batek biotza bete zion" ²⁰.

Herskari ahostun eta ahoskabearen errepika hau, ahokorapilo baten gisara, indar adierazgarririk gabekoa gertatzen da.

Herriko mintzairatik ateratako paranomasia erabiltzen du, zeharo

19. Ibid.

20. Ibid.

arrunta, eta aurreko adibidean bezalaxe, eraginik gabekoa, hain da usu eta erabilia:

“eldu ziren bazter artara inkenieroak oro ikusten eta ikasten”²¹.

3.2. Morfosintaxia

Mintzaira arruntak mugatutako idaztanka du Larrekok, bere irakurle-goaren maila eta beharrez oharturik, nekazariak baitziren, berak hain gogoko zuen “Eskualduna” astekaria mamitzen zuten nekazariak, hain zuzen. Mezuak forma literarioak baino premiazkoagoa dirudi idazle honen prosan; aberastasun haundiagorik lortzeko ezintasuna ere legoke, gure us-tez, bere idaztietan antzeman daitezkeen mugapenak ikusirik. Horrelaxe aitortzen du berak, “Supazter txokoan”, Barbier-en obra komentatzen duelarik; hain obra ederrak irakurriz gero, euskaraz egiteko asmoak ezabatzen zaizkio, berak askoz txarragoak egiten dituelako.

Bazekien Larrekok bere mugak ez zirela txikiak, hizkera joria eta aberatsa osatzerakoan, batez ere, eta horrexegatik ekin zion hain sutsuki herriko mintzaira ongi ikasteari. Ez zen ohartu, aldiz, didaktismoa baztertuxeago utzi beharko zuela, bestelako prosa landua lortuko bazuen.

3.2.1. Adjetiboak

Erabiltzen dituen adjetiboek ez dute maila adierazkor haundirik, betiko epiteto arruntak dira, orokorrean: “sorteñi polita”, “etxe xuri-xuri apaña”²², errixka pollita”, “leku illuna ta bustia”²³.

Gauza bera gertatzen da superlatiboekin, euskarak eskaintzen duen baliabide arruntenera jotzen baitu berauek osatzeko: “izil-izilik”, “poliki-poliki”²⁴, “bizi-bizia dago aren baitako ustekida gozo-gozoa”²⁵, “goiz-goizetik ibilaldi luze-luzeak eginik”²⁶.

Ageri denez, esaldi berean bitan edo gehiagotan erabiltzeko oztoporik ez du ikusten, ahozko hizkeratik hurbiltzen delakoan.

3.2.2. Laguntzailearen ezabaketa. Galdegaia. Aditz trinkoak.

Askotan, kontaketa egiten ari delarik, laguntzailearen ezabaketara jotzen du. Dena den, gauza bera suertatzen da eritzi ideologiko bat ematen ari denean. Ahozko hizkeratik ere harturiko era, narrazioa edo argudiatzea aintzeko asmoz. Horrela ere deskribapenetan:

21. Ibid.

22. “Ardi galdua”. (B)

23. “Alli-ko Arpe-zuloen agerraldia”. (B)

24. “Eskualdun biozduna Mexico-n”. (A)

25. “Orreagatik”. (A)

26. Ibid.

"Bazter itsusiak zinez: zoko menditsu, oro patar: malkorra eta mallo ut-sa" ²⁷. Kasu honetan ez du adizki bat ere sartu. Edo: "baño ostatuik iñork ez eman nai. Tegi zikin batean sartu, baño lorik ezin egin" ²⁸.

Zenbaitetan, eta laguntzailea ez isilteagatik, ahapaldi traketsak burutzen ditu, errepikapena zeharo kakofonikoa gertatzen delarik:

"Gure gizona bertze gisaz jokatu zen: bas-erreka beiti eman zen, baño zutik ezin egon errestaka eman zen eta xoko batean gelditu zen izil-izilik, nondik agertuko zitzaion bere azkena" ²⁹.

Parrafo honen balizko suspentsea arras ezabaturik gertatzen zaigu, laguntzaile beraren errepika ez ezik, "eman" aditzarena ere baitugu.

Agerikoa da, adibide honetan, euskal idazleek topatzen duten arazoa, aditz laguntzailea dela medio. Horrela adierazten du Mikel Hernández Abaituak, Arestiren prosari buruzko saio bat egitean:

"Ekintza azkarki adierazteko, aditza nagusi gertatzen da zenbait pasartetan eta horietan "zuen", "zen", "zion", "nuen", "nintzen", edo "zuten", "ziren", esaldi bukaeran maiz aurkitzea erredundante iruditzen zaigu, prosaren erritmoa astun egiten duelarik" ³⁰.

Dena den, esan dugunez, errepikapen hori ez da Larrekoren idaztietan gehien aurki daitekeena. Arazo hori saihesteko, laguntzailea isildu egiten du, partizipio hutsa erabiliz, edo-ta aditz izena. Horrez gero, aski perpaus laburak eta justaposizio ugari sortzen dira.

Errepikak, geroxeago aztertuko dugunez, juntagailu batzuen maiztasunetik etorriko zaizkigu.

Galdegaiari dagokionez, zuzenki, ongi erabiltzen duela esan dezakegu. Zenbaitetan, eta iparraldekoen gisara, laguntzailea aurreratu egiten du, galdegaia azpimarratzeko asmotan:

"Odolaren pare bear ginuke euskara maitatu" ³¹.

Galdegaiaren erabilera, hizketan bezalakoxea da:

"Mendiaren gain gaineko gallurroan, aitza edo peña ta larre batzuen azpian daude bi zuloak" ³².

Batzutan, galdegaia konpletibozko esaldi luzea denean, atzera botatzen du, aditz nagusia lehendabizi ipiniz.

Larrekok ibiltzen dituen adizki trinkoak, bestalde, usuenak dira, arrunte-nak. Ez du bestelako zailtasunik bilatu eta holakoan ere, bere herriko hizkerara jotzen du.

27. "Eskualdun biozduna Mexico-n". (A)

28. Ibid.

29. Ibid.

30. HERNANDEZ ABAITUA, Mikel: "Euskal aditz laguntzailearen problematika estilistikoa. Arestiren prosaz oharrak", in JAKIN, 48 zbk., 1988.

31. "Ez da egiaren beldur". (B)

32. "Alli-ko Arpe-zulo-en agerraldia". (B)

3.2.3. *Aditzen denboraldia*

Berbaldi ideologiko hutsaren kasuan, orainaldia dugu erabiliena. Orainaldiaz daude burutuak azterturiko artikuluko guziak, “narrazioak” deitu ditugunak kenduta. Azken hauek, lehenaldian gertaturiko istorio bat kontatzen dute. Hauetan ere, dena den, bada denboraldi aldaketa bat, orainaldira iragatekoa, alegia, ekintza irakurlearengandik hurbiltzeko xedez, eto-ta, sententzia moduan, idazlearen eritzia ager dadin. Lehenengo kasurako, adibide garbia dugu “Eskualdun biozduna Mexican” istorioan, denboraldi aldaketa oso maiz suertatzen delako kontaketa zehar:

“Senar-emazte biok irizpide bateratu orduko Ameriketara abian ziren.

Mexico-n dugu gure gizona osasunez sendo; lanean azkarki, baño ongi irabazten.

Bizkitartean eta jadanik lau seme-alaben aita dugu”.

“Ardi galdua” izeneko istorioan, berriz, hirutan bakarrik sartzen du orainaldia: pertsonaia beraren ahotan exklamazio bi ipintzeko, batetik eta sententzia moduko eritzi bat azaltzeko, bestetik:

“Baño biozketako arazoetan arat-unatik ez da”.

Esana dugunez, istorio hauek ere, ideiak irudikatzen daude kontatuak, eta bereiztu baldin baditugu, ildo narratibo bat daukatelako izan da, eritzi-artikulu hutsetik zertxobait ezberdintzen direlako.

Denboraldi-aldaketa ez da bakarrik lehenalditik orainaldira gertatzen. Bada, halaber, eta berbaldi ideologiko deitu dugun horretan, orainalditik lehenaldira doan aldakuntza. Hau, berbaldia anekdota baten bidez hornitu nahi duenean egiten du:

“Ortan ez dago, laterriaren ezagupide bat baizik; ots, laterritasuna (ciudadanía) ez besterik.

Leengo egun batean erran ziguten, Auriz’ko ostalari bat, salatua izan zela gobernadore jaunaren aurrean, nazionalista zelakotz”³³.

3.2.4. *Perpauza*

Perpauaren egituraketa aztertuko dugu jarraian, eta Larrekoren idaztan-keraren bereizgarria dela erakusten saiatuko gara.

Koordinazioa nagusitzen da, ezbairik gabe, gehienbat “eta” juntagailu kopulatiboaren bitartez. Horrela lortzen du, eraberean, lehen aipatu dugun laguntzailea errezago desagertarazi eta erritmoa arintzea, hizketan egiten den bezalaxe. Orohar, polisindetona dugu prosa honen ezaugarriren bat, argudioak zehaztuz joateko, geroxeago ikusiko dugun bezala.

Orokorrean, perpau bakunek osatzen dituzte parrafoak, inongo korapilorik gabe.

Honek ondorio negatibo bat dakar: tankera telegrafiko samarra suertatzen denez, ez dago aukerarik perpau txertatu borobildurik irakurtzeko, eta pobretasun kutsua eragiten dio testuari.

33. “Euskaldun ona... euskaldun”. (B)

Txertatuen artean, konpletiboak, denborazko eta moduzkoak (ia beti ELA atzizkiaz emanak) dira ugarietak. Gehienetan, bi menpeko baino gehiago ez du elkarren ondoan jartzen. Kausalak, ahozkoan legez, ETA-ren bidez egiten ditu sarritan:

“euzkotar-biotza zuen-ta”³⁴.

Estilo zuzenera jotzen du maiz, pertsonaien beraien ahotan zerbait jar-tzeko, edo-ta anekdotaren bat kontatzen duenean:

“Huna zer zautan erraiten:

“Ybarnegaray gure errechimeduan lieutenant dugu”³⁵.

“Ez da aspaldi, Madrid’én nindagola, ango irakasle bati auxe entzun nio-la.

Aren ikasle bati galdeka ari zen, erantzupen zuzenik aditu gabe. Oarturik etzagola ortarako gaiturik edo ikasirik, éran zion eta éran zigun:

“Ikasi eta ikasi ari zarezte dituzuen liburu andi orietan. Ek irakurtzen ez duzue astia galtzen bakarrik, baizik eta astotzen zarete (...)”³⁶.

Askotan, estilo zuzena sartzekak erritmoa arindu baino gehiago, moteldu egiten du. Ahozko literaturako moldeak dira estilo zuzena sartzeko formula horiek (“Huna zer zautan erraiten”, etab.).

Badu, bestaldetik, juntagailu ilatibo gehiegi sartzeko joera, perpausaren hasieran, aipatu tankera telegrafikoa areagotzen delarik. Hasieran azaldutako tesia hobeto zehaztuz joateko balio diote:

“Gure xedeari buruz, nahi duguna, eri-handituek gai othe diren Erlisioaren laguntzak emateko edo ez: laguntza oriek laster eman behar diren edo asti artu daiteken.

Baiki: askotan gauza zalla eri-handi baten ezagutza guti aski ilundurik dagoanean, noraraño dago ilundurik jakitea (...).

Nola nahi den: (...)

Ala ere, (...)

Baño: (...)

Os; iltzeko ordu artan (...)

Itz batean: eriotzeko ordua (...)

Kontu huni: badire eri-handiturik (...)

Ohartu ere: eri batzu badirela (...)

Jakina: (...)

Aukeratu ditugun adibide hauek “Sendalari baten argiak” artikuluari dagozkio. Hautaketa honen arrazoiak garbi daude, gure ustez: beste inon baino hobeto agertzen da honetan nola baliatzen den Larreko errepikapenaz, ia-ia irakurlea aspertzerraino. Ez dago ia progresiorik, hasieran ezarritako tesiatik bukaeraraino.

Askotan erabiltzen du jokabide hau, eta oso poliki gehitzen ditu, gehit-zekotan, ideia berriak.

34. “Ardi galdua”. (B)

35. “Bi euskaldun”. (B)

36. “Liburuaren eguna”. (B).

Jokabide hau, “repetitioa”, alegia, oratoria edo erretorika klasikoari dagokio, Gotzon Garatek adierazten duen legez:

“Predikuetan behin eta berriz, modu askotara eta zuzen edo zeharka, gauza bera esan, entzule-irakurleen burutan fintkiago sar daitezten.

Ideiak ez ezik, batzutan gertakariak beraiek ere behin baino gehiago errepikatzen dira.

Sermoietan etengabe errepikatu eta anplifikatzen dira ideia berdinak”³⁷.

Tankera erredondantea dugu, beraz, Larrekorena, predikugintzaren tankeratik hurbiltzen delarik:

“Jainkoa eta Jainkoaren ordezeko, buruzagi-apez-lege aginduak eta *oitura onak begiratzen dituen gizona, nekez* (burutik juana ezpa dago), *izanen da biraozale eta irankoia*.

Euzkotarren gogo-biotzetan betidanik ostatu den *begiramen andi ori dela bide, ez daiteke euskelduna aotzarrekoa izan*”³⁸.

Harridura edo exclamazio perpausen erabilera ere aipatu behar dugu atal honen barruan. Irakurlea bere tesiaren alde erakartzeko nahian edo, oso maiz sartzten ditu holakoak bere izkribuetan, idazlearen jarrera agertuz, Jainkoaren izena maizegi aipatzen duelarik:

“Eta nolako gutunak, argitarat ematen dituztenak! (...)

Jainko maitea! Zenbat alper lan egiten ez den, gutun andi ezin jasanezko orietan! Zenbat asti ez gaituzte galazten, alako gutunak irakurtzen eta ikasten!”³⁹.

Sarritan, harridurak elkarren ondoan pilatzen dira, aurreko adibidean bezalaxe. Funtzio adierazkorra nagusitzen da holakoetan.

Beste batzutan, harridura ez ezik, galdera erretorikoa ere agertuko da:

“Zinez, nolakoak garen eta nolakoak izanak garen! Arritzeko ez ote da, eskualdunek eskuara ez maitatzea! Maitatzen ez dena, nola begiratu?”⁴⁰.

3.2.5. Irudi erretorikoak

Errepikaren baliabidea sendotu eta areagotzera datoz jarraian aztertuko ditugun jokabideak.

Juntagailu, aditzondo, izen, izenondo, atzizkien errepikak aurki ditzakegu sarritan, eta berauek trakestu, baldartu egiten dute perpaus osoa, astun egiten dute irakurketa.

Halakoak suertatuko dira askotan:

“Oxobi (sic) darabilan euskara *ain* da euskara, *non ta* bat euskaldun garbia ezpada, neketsu zaiokie aren “Alegiak” ondo aditzeko.

Ain euskar lan edera egin digu, *non ta* askotan itz bat edo bi aski bai ditu gogo eta borobil-borobila emateko”⁴¹.

37. GARATE, Gotzon: Euskal elaberrien kondaira (LL). Gero. Bilbo. 1983.

38. “Euskaraz biraorik ez daiteke”. (B)

39. “Liburuaren eguna”. (B)

40. “Naparra-tik”. (B)

41. “Oxobi” apez jaunaren “Alegiak”. (B)

Juntagailu kontsekutiboaren errepika dugu, bitan antzeko ideia adierazteko.

Zenbaitetan, atzizkien errepika dela eta, batez ere, zaindu gabeko idazkera ematen du Larrekorenak, bapatekoa, zuzenketa lanik jasan ez duena. -T(Z)EKO, -(R)IK, agertzen dira behin eta berriz, kakofonia sortuz eta diskurtsoari dorpe-itxura emanez:

"letraduntzeko, jakintsuntzeko eta zintzoteko"⁴². "Huntaz landara, erihandien gana apezta laster edo zaluiki deitzen dutelarik, astirik ez delarik sendalariaren begira egoteko, ikusi behar da etxekoen artean nor izango othe den eri aren berri argiago eman dezakenik, haren gana jotzeko eta lehen bai lehen lanari lotzeko"⁴³.

Eta errepikaren adierazgarri, beste adibide bat; kasu honetan funtzio ezberdinetan dagoen hitz bat errepikatzen du, gainera ia homofonia den beste hitz baten ondoan:

"Berrehun aldekoak bai dira, aldian aldikoak nagusi, bazter guziak aldika ebatsi dituzte"⁴⁴.

"Repetitio" baliabidea areagotuz, bestelako jokabideak ere agertzen zaizkigu, hala nola sinonimia, hitz erasketa, paralelismoa, anafora, bihurkiak, antonimia, gradazioa.

Axularren tankerari jarraiki, nonbait, sinonimo bikoteak ibiltzen ditu bata bestearen atzetik, ideiak berretsi nahian bezala, gero eta zehaztuago eskaintzeko asmoz:

"Orgatik deitzen naute nigarti edo gaitz-aldeko (pesimista) euskarari buruz ari naizelarik.

Ez uste gero, nik ez ditudala onartzen eta edereften euskarari buruz egiten diran lanak eta asmoak (...).

Orgatik etzait aski goraka ta espantuka asteko. (...)

Lagun arontetara eta xeetara ez dita gauzak edatzen edo zabaltzen, erabiliz-erakutsiz baizik"⁴⁵.

Badirudi idazlearen asmoa bere idaztiak ahalik eta euskaldun gehienek ulertzea zela. Asmo soziologiko horri leporatu beharko genioke, beraz, hainbeste sinonimo pilatze hori, astun samarra gogozko irakurketa egingo bada.

Horrelako zerbait gertatzen da, moteldurari dagokionez, aipatu gainerako baliapideekin: hitz erasketek sermoi-itxuraz jazten dute testua:

"...aspalditik, gaintetik eta azpitik, lege tzarrez eta oitura tzarragoez egunkari ta gutunez, agerrian eta oiuka, Jainkorik ez dagola, bizitza unekin batean gurak egin duela"⁴⁶.

Sinonimo pilaketa ere dugu adibide honetan.

Antonimoak ere pilatzen ditu askotan, aspertu gaberik:

42. "Ramiro de Maeztu Iruñe-n". (B)

43. "Sendalari baten argiak". (A)

44. "Eskualdun biozduna Mexico-n". (A)

45. "Ez da egiaren beldur". (B)

46. "Iruña-tik". (B)

“...zelaia edo malda den, ordoki edo mendi; gora edo bera, egi edo buru, gaina edo bekoa, zokoa edo galdurra; urtsu edo arritsu, lepoa edo meaka, axiarte edo arlepo, arrimalla eta eta... Larre edo oiantsu, zara edo soro, iguzki aldeko edo muspela: mendi gallurra, mendi buru”⁴⁷.

Jokaera honetan, Txomin Agirrek hartutako bide beretik doa idazle nafarra, hizkuntzaz goxatu nahi balu bezala, ikasitako hitzez ikusten duen gauza oro izendatuz.

Gradazioak ere erabiltzen ditu parra-parra:

“Euskara eusten laguntzeko, eskolak ongi, idaztiak obeki, irakurgaiak ederto (...).

Sortuko zaizkigu, jadanik sorturik ezpadaude, euskara edertu, edatu eta goratuko dutenak”⁴⁸.

“(…) arrazoina lukete, ez duenak dagon lekutik artzeko; zergatik inor ni baino geiago, ni baino aberatsago eta ni baino atseginago bizi?”⁴⁹

Anafora ere, hots, hitz berbera zenbait perpausen hasieran azaltzea ugaria da, batzutan perpaus barnean ere errepikatzen delarik:

“Toki izenen etorkiari buruz (...)

Toki izen guzien iturriak (...)

Tokietan, toki arau, berainez edo berez, sortzen diren landare mota etarik eldu da tokiaren izena.

Guzien buruan toki-izen bakotxak badauka, inguruko bertze bazter guzienganik toki ura berezteko ezagupidea eta muga”⁵⁰.

3.3. Semantika

3.3.1. *Lexikoa*

Lexikoaz ari garelarik, ez du Larrekok berrizalekeria nabarmenik erakusten, euskaldun gehiengo batengana heldu nahi duela dirudi eta, horrez gero, ulergarritasunera joko du.

Ezintasuna agertzen du, aldiz, sendagintzako hiztegia itzultzeko orduan. Asmatzeke zegoen lexikoarekin egiten du topo, baina ez da gauza izan erdarazko hitz horiei, edo euskal ordaina bilatzeko, edo euskal itxura emateko eta zeuden moduan utzi zituen, euskaratu gabe (ikus “Sendalari baten argiak” (A)).

3.3.2. *Konparaketa eta metafora*

Konparaketa eta metafora burutzekotan, herri mintzaira arruntetik edo

47. “Eskuara eta toki izenak”. (A)

48. “Ez da egiaren beldur”. (B)

49. “Iruña-tik”. (B)

50. “Eskuara eta toki izenak”. (A)

topikoetatik ateratzea nahiago bide du Larrekok; sorkuntza lanik ez zaiola antzematen esan daiteke.

Orijinaltasunik gabeko konparaketak, beraz, topatuko ditugunak:

"...eta eri andi etsitu batengana sendakinak bezala eldu ziren bazter artara inkenieroak. (...)

Gizon garbiek atorraz aldatu bezala Mexico-n buruzagien aldairak egin dituzte" ⁵¹.

"(...) bertze batzu itxura berberakoak baña buruz beiti, lanzurdak iduri, dilindan eta muturrean ur tanta bat" ⁵².

Ohizko espresamoldeen bitartez eraikiko ditu irudiak, BEZAIN, BEZALA, BEZALAKO, IDURI, ALA... partikulez baliaturik.

Zenbaitetan, luzexeagoak dira lortzen dituenak, landuagoak:

"Emphisema" delakoak handizki anpatzen du begitartea; baño kolore sano du, larrua zapatzean kri-kri egiten du, ardiak larrutzeko airez anpatzen diren bezalakoek" ⁵³.

"Ugaldeak gutika-gutika urbideko biurgune-bazterrak jaten oi dituen bezala, ala erdarak irentsi ditu eskuaren eremuak" ⁵⁴.

Alegoria izan zitekeena, konparaketa hutsean geratzen da, ordea, konparaziozko nexu bat sartzen duelako:

"Oianetan barna bidegabeturik; lar eta sasien artetik petikora edo gainbera; erreka gora edo bera; zaluiegi ibiltzen oi gara, leen baileen argia ikusiko ote dugun; bidexka edo bide zabal bat antzemanen ote dugun.

Gisa ortan galduak gabiltzala, zelai bat edo bide ezagun bat jotzen dugularik; gure atsedenaren andia eta gozoa!

Alako bat gertatu zitzaidan "Guero" irakurtzen asi nintzalarik" ⁵⁵.

Metafora ere, ez da irudi topikoetatik aldentzen:

Gure gizonak ezin zuen etsitu; bere biotzeko maiteño aren itzaltzeak min andia ematen" ⁵⁶. Gizonaren semea hiltzen da.

Aintzineko tradizioko su-aren irudikapenean aurki daiteke metafora hori. Edo, euskal gaiei lotuta:

"Euskaldun letradunen artean pitz bageneza biotzeko gar ori, euskaraz aditzeko..." ⁵⁷.

Eguneroko bizimoduarekin zerikusia dutenak:

"Eskuara birlandatzeko lur egokiena abertzaletasuna da" ⁵⁸.

51. "Eskualdun biozduna Mexican". (A)

52. "Alliko Arpe-zulo-en agerraldia". (B)

53. "Sendalari baten argiak". (A)

54. "Naparra-tik". (B)

55. "Axular". (B)

56. "Eskualdun biozduna Mexican". (A)

57. "Ez da egiaren beldur". (B)

58. "Naparra-tik". (B)

3.3.3. *Antinomia. Euskal esamoldeak. Harridura. Galdera erretorikoak.*

Sinonimoekin egiten zituen antzeko pilaketak edo zerrendaketak osatzen ditu, aurkako esanahidun hitz-bikoteak metatuz, ideia nagusi baten adierazgarri:

“Jainkoak ez gaitu guziak berdin egin: buru onekoak eta gogofekoak; argiak eta tepelak; batzu bertzeen irakasteko on eta bertzeak entzuteko eta aditzeko doi: batzu jakintsu bertzek beti ikasle.

Batzu beti bide iegiten, bertze batzu aldiz, beti leku berean geldi”⁵⁹.

Euskal esamoldeen erabilera ere aipatu nahi genuke. Esana utzi dugu zein kezka haundia zuen Larrekok euskal mintzaira jatorra, kutsatu gabekoa menperatu eta ederki erabiltzeko.

Ardura horretan datza hainbat euskal esakeraren erabilpena eta iparraldeko Iriart-Hurruty-ren jarratzailea agertzen zaigu⁶⁰:

“Baño biozketako arazoetan arat-unatik ez da”⁶¹.

“Ongi bai zakien Jainko Jaunari gaudela aldeaz edo moldez, onean eta gaitzean, atsegin alditan nola biozminetan”⁶².

Azkenik, eta bukatzeko, harridura perpausak eta galdera erretorikoak aipatu behar ditugu Larrekoren prosaren ezaugarritzat, jadanik azaldu dugun legez.

Harridurak nunahi, irakurlea bereganatu asmoz, Jainkoaren izena ere ha maika aldiz idazlearen ahoan.

Galdera erretorikoak soberan daude testu guztietan. Askotan, idazleak berak ematen digu segituan erantzuna:

“Oker untarik zuzentzeko eta gure buruak gaitz ortarik begiratzeko, zerbeit egiten ote dugu? Geienek ezer ez; gaitz unen kutsurik gabe, garanoik ote dago? Eta ez kutsatzeko arta dutenak oro batera emanik, amar bat ote dira?”⁶³.

IV. BALORAPENA

Labur-bilduz, Larrekoren prosaren balioak prosa honek gizartean betetzen zuen funtzioan dautzala esan dezakegu, balio literarioan baino.

Euskal kazetaritzaren sorkuntzan parte hartzetik datorkio idazle nafar honi merezimendurik haundiena. Aski ongi zekien, eta halaxe aitortzen du, euskal kazetaritza jaio berria zela⁶⁴, eta horregatik ematen du aholkua “Es-

59. “Supazter txokoan”. (B)

60. “Iriart-Hurruty es, a mi juicio, el escritor euskérico que mayor suma de modismos y locuciones corrientes ha usado en sus trabajos; trayéndolos o haciendo uso de ellos con tal naturalidad y precisión que a la legua se ve discurría con ellos o valiéndose de ellos”. Larreko, “Nuestros escritores en euskera. Iriart-Hurruty”, in *La Voz de Navarra, 1925-2-25*.

61. “Ardi galdua”. (B)

62. “Eskualdun biozduna Mexican”. (A)

63. “Nafarroako euskal esakerak”. (A)

64. “Todavía estamos en mantillas respecto a la creación del periodismo euskérico, pero

kualduna" astekaria egiten zutenak eredutzat hartzeko; Iriart-Hurruty, Abbadie, Ademaren lana izugarri ona ikusten zuen Larrekok. Hiru kualitate bereizten ditu Iparraldeko idazle horiengan: asteroko kronistak bere kronikaren gaia aurkitzeko gaitasuna; irakurlegoa haintzat harturik, gaia nola azaldu behar den jakiteko ahalmena; irakurleendako datekeen interesgarriena aukeratzeko ikusmena.

Prosa propagandistatik balio literarioko prosaraino zegoen bidea ez zuen Larrekok ibili, zoritzarrez, baina bere xedearen beraren baitan zetzan oztoporik handiena.

Berak eta bere garaikideek, amildegiraino zihoan hizkuntza argitara eramane nahi izan zuten, zientzia eta politikaren berri emateko gai zela frogatuz. Tamalez, kanpoko korrante guztiei hertsiki zieten atea, itsuki, fede, ohitura, eta bizimodu zaharrak babestearren.

Horregatik, gaur eguneko irakurlegoarentzat, erretolika klasikoarekiko atxekimendua nekeza eta eragozpen suerta daiteke, zaila gertatzen delako goxotasun literarioak aurkitzea sermoi-kutsua duten hainbat artikulutan, ideien progresio eza nagusia izanik.

Gaur egungo kazetaritzaren kontzepzioetik urrun samar geratzen da Larrekorena, eta hizkuntza alderdira jo beharko du gaurko irakurleak nolabaiteko probetxua aterako badio, herri-hizkera mamitzera, alegia.

BIBLIOGRAFIA

1. Larrekori buruzko bibliografia.

- ERKIAGA, E.: "P.F. Yrigaray Goizueta "Larreko" (1869-1949)", *EGAN*, 1-3, 1970.
 ALZOLA, N.: "Auritzen", *EGAN*, 967. 18 or.
 ETXENAGUSIA, K.: *Euskal idazleen lorategia*, 1969, 226 or.
 PEREZ GOIENA, A.: *Ensayo de Bibliografía navarra*, IX, 561 or.
 LATXAGA, José María: *Naparroa euskal arrobia*, Donostia, 1973, 179. or.
 ELKARLANEAN: "Larreko", Enciclopedia general ilustrada del País Vasco, Auñamendi, Literatura, Vol. III, San Sebastián, 1973.
 VILLASANTE, L.: *Historia de la literatura vasca*, Ed. Aránzazu, 2ª ed., 1979, 374. or.
 MITXELENA, L.: *Historia de la literatura vasca*, 2ª ed. Erein. Donostia.
 JUARISTI, Jon: *Literatura vasca*, Taurus, Madrid. 1987.
 SARASOLA, Ibón: *Historia social de la literatura vasca*. Akal. Madrid 1976-1982.

2. Azterketa estilistikoa egiteko bibliografia.

- KORTAZAR, Jon: *Mikel Zarateren prosa*. Euskaltzaindia, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1981.

el conocimiento de lo que estos señores han hecho, bien puede servirnos de modelo o enseñanza y aprovecharnos en lo que vale". LARREKO: "Nuestros escritores en euskera. Iriart-Hurruty", in *La Voz de Navarra*, 1925-2-25.

- H. FERNANDEZ, Pelayo: *Estilística. Estilo-Figuras estilísticas. Tropos*. Ed. José Porrúa Turanzas, S.A. Madrid. 1985.
- DIAZ BORQUE, José María: *Comentario de textos literarios*. Playor. Madrid. 1985.
- YLLERA, Alicia: *Estilística, poética y semiótica literaria*. Alianza Editorial. Madrid 1974.
- ZENBAIT EGILE: *Crítica literaria*. Departamento de Filología Francesa. Universidad de Zaragoza. 1979.
- GUIRAUD, Pierre: *Essais de Stylistique*. Klincksieck. Paris 1969.
- DUPRIEZ, B.: *L'étude des styles*. Didier. Paris. 1969.
- CRESSOT, Marcel: *Le style et ses techniques*. P.U.F. 1963.
- GARATE, Gotzon: *Euskal eleberrien kondaira*. Gero. Bilbo. 1985 (I eta II).
- HERNANDEZ ABAITUA, Mikel: "Euskal aditz laguntzailearen problematika estilistikoa. Arestiren prosaz oharrak", in JAKIN, 48 zbk., 1988.
- OTAEGI, Lourdes: "Lizardiren poetikaz", in JAKIN, 29 zbk., Donostia, 1983.
- ATXAGA, Bernardo: "Euskal narratibaren arazoak", in JAKIN, 25 zbk. Donostia. 1982.
- ZENBAIT EGILE: *Enciclopedia del periodismo*. 4ª edición revisada. Noguer. Barcelona-Madrid. 1966.
- KORTAZAR, Jon: *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Colecc. Magisterio. Derio. Ed. Desclee de Brouwez, Bilbao, 1986.
- "Lauaxetaren olerkigintzaren ardatzak", JAKIN, 36; 1985,79-98 or.

3. Larrekoren lanen bibliografia

- IRIGARAY, Anjel: *Prosistas navarros contemporáneos*. Departamento de cultura de la Diputación de Navarra, Pamplona. 1958.
- LARREA, José María eta DIEZ DE ULTZURRUN, Pedro: *Nafarroako euskal idazleak (I)*. Pamiela, Iruñea. 1987.
- IRIGARAY GOIZUETA, Pablo Fermín, "LARREKO": *La Voz de Navarra*. Iruñea:

1924:

- "Por el euskera", Otsailak 19.
- "Por el euskera. El euskera de Salazar". Martxoak 1.
- "Por el euskera". Martxoak 16.
- "Por nuestra lengua", Uztailak 26.
- "Por nuestra lengua", Uztailak 27.
- "Por el euskera. A mis queridos colaboradores euskéricos". Uztailak 30.
- "Por nuestra lengua", Abuztuak 20.
- "El último euskeldun de Olo", Abuztuak 27.

1925:

- "Por el euskera", Otsailak 19.
- "Nuestros escritores en euskera. Iriart-Hurruty", Otsailak 25.
- "De nuestro prelado", Martxoak 3.
- "Euskara", Martxoak 6.
- "Grippe gaitza tik begiratzeko, zerbeit", Apirilak 1.
- "Iriart-Hurruty", Apirilak 4.

- "Euskar gaiak. Verbos transitivos e intransitivos", Apirilak 14.
"Abbadie", Apirilak 16.
"Abbadie-Adema", Apirilak 23.
"Euskar gaiak. Modismoak", Maiatzak 19.
"Por el euskera en el seminario", Ekainak 9.
"Euskar gaiak", Ekainak 25.
"Hacia la cultura?", Uztailak 8.
"El día de Axular en Sara", Abuztuak 25.
"Axular", Irailak 1.
"Euskar gaiak", Irailak 3.
"Axular en eguna", Irailak 16.

1933:

- "Larreko "Manezaundi" jaunari", Martxoak 30.
"Neskatxa galdu baten eriotza", Apirilak 27.
"Jende tarteko osasungarriak", Urtarrilak 14.

1934:

- "Larru gorrian", Abuztuak 10.
"Gaur ene aldi", Irailak 27.

1935:

- "Eskualdun berrieri, itz bat", Urriak 15.
"Kristo errege", Urriak 27.
"Arana'tar Sabin zena", Azaroak 24.
"Monzon jaun euskaldunari", Abenduak 1.

1936:

- "Obra fundamental: "Genio y lengua", de Ibar", Uztailak 12.

LABURPENA

Azterlanaren xedea, P.F. Irigaray (1869-1949) "Larreko"-ren prosaren idaz-tankera deskribatu eta baloratzea dugu. Euskal Pizkundeko aintzindarien bide beretik abiatuta, hizkuntza literarioa ideologiaren menpe jarri zuen beti. Ahalik eta ulergarrien eta jatorren idazten saiatu zen, korapilorik gabeko per-pausak osatuz, eta errepikaz maizegi baliatzen zelarik. Tankera erredondantea dugu berea, ez bait zen erretorika klasikotik aldentzeko gai izan. Euskal kazetaritzaren sorkuntzan parte hartzetik datorkio Larrekori merezimendurik haundiena.

RESUMEN

El objetivo de este estudio es describir y valorar el estilo de la prosa en la obra de P.F. Irigaray "Larreko" (1869-1949). Siguiendo los pasos de sus predecesores en el movimiento renacentista vasco, subordinó siempre el lenguaje literario a la ideología. Intentó escribir de una manera fácilmente

comprensible y popular, con frases poco complicadas y valiéndose demasiado a menudo de la repetición. Es un estilo redundante el suyo, ya que no fue capaz de distanciarse de la retórica clásica. Podemos decir que el mayor mérito de Larreko es el de haber participado en la creación del periodismo en lengua vasca.

RESUME

Le but de cette étude est de décrire et d'évaluer le style de la prose dans l'oeuvre de P.F. Irigaray "Larreko" (1869-1949). Suivant les pas de ses prédécesseurs du mouvement de renaissance basque, il a toujours subordonné le langage littéraire à l'idéologie. Il a essayé d'écrire d'une façon facilement compréhensible et populaire, avec des phrases peu compliquées, et en ayant trop souvent recours à la répétition. Son style est un style redondant, car il n'a pas su prendre ses distances par rapport à la rhétorique classique. Nous pouvons dire que le principal mérite de Larreko est d'avoir participé à la création du journalisme en langue basque.

SUMMARY

The aim of this study is to describe and assess the prose of the works of P.F. Irigaray "Larreko" (1869-1949). Following the steps of his predecessors in the Basque Renaissance movement, he submitted literary language to ideology. He tried to write in a popular and easily understandable way, with not very complex sentences which was, too often, repetitive. His is a style of redundancy, as he was unable to escape from classic rhetoric. Larreko's main value is his contribution to the creation of journalism in Basque language.